Espediente-zenbakia: 2024024 Bateratua

Kontratazioaren xedea: zerbitzuak ematea “IKANOS ekimenean laguntzeko idazkaritza teknikoan eta ekimenaren hedapenean, gaitasun digital profesionalen alorrean eta zibersegurtasuneko gaitasun digital profesionalen alorrean”.

Dokumentua: Preskripzio Teknikoen Plegua.

1. SARRERA

Euskadiko eraldaketa digitala bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren oinarrizko tresna da “Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia”, eta 2021eko martxoaren 30ean onartu zuen Gobernu Kontseiluak.

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak bultzatutako plan honek eraldaketa digitalerako eredu berri bat ezartzen duen erronkari lagunduko dio, parte hartzen duten eragile guztien laguntza sinergiko, proaktibo eta koordinatuarekin.

Erakunde guztien egungo eta etorkizuneko hazkundea bultzatzera bideratuta daude teknologia digitalak, baita funtzio, gaitasun multzo eta laneko profil berrien eskaria handitzera ere. Automatizazioaren gorakadaren aurrean, enpresek haien lan-indarra berregituratu behar dute. Horretarako, profil tradizionalenak gutxitu eta horien ordez profil teknologikoagoak txertatu behar dituzte, edo azpikontratazioa areagotu behar dute lan espezifikoetarako.

Enpresa-ikuspegian oinarrituta, saileko eta erakunde osoko helburu digitalak eskuratzeko langile bakoitzak zer bide jarraitu behar duten neurtzea gomendatzen da. Beharrezkoa da profesionalen maila digitala ezagutu eta kudeatzea, konpetentzietan oinarritutako prestakuntza egokia eta erabilgarria diseinatzeko. Azterketak barne hartu behar ditu ezagutza teknikoak, tresnen erabilera eta ingurune digitalera egokitzeko beharrezko trebetasunak, baita ingurune digitaletako informazioaren kudeaketa, elkarlana, lankidetzarako eta sarean lan egiteko teknologia erabiltzen duten taldeen kudeaketa, ekonomia digitalean murgilduta dauden bezeroen arreta edo zibersegurtasuna ere. *Soft* gaitasun horietako batzuek, gaitasun digitalekin lotuta, agerian uzten dute pertsonen gaitasunak gero eta gehiago direla zeharkakoak, multifuntzionalak eta malguak.

Egungo bizi maila mantentzeko, enplegu-tasa altuei eusteko eta kohesio soziala sustatzeko pertsona guztiek behar dituzten gaitasunen eta konpetentzien multzo egokiaren barruan sartzen ditu Europako Batzordeak gaitasun digitalak, egungo gizartea eta etorkizuneko lan-mundua kontuan hartuta.

IKANOS egitasmo eragilea (https://ikanos.eus/) lerrokatuta dago Europako gaitasun digitalen esparruarekin. Hala, adituen laguntza errazten du Euskadin gaitasun digitalak nola eskuratu, ebaluatu, ziurtatu eta egiaztatu daitezkeen zehazteko eta errazteko (aurrerantzean, "**IKANOS ekimena**").

Europako Batzordeak bultzatutako gaitasun digitalen Europako eredua, *Digital Competences Framework* izenekoa (aurrerantzean, "**DIGCOMP**"), jarraitzen du gaitasun digitalen IKANOS ekimenak. Europako hiritarren gaitasun digitalen garapenerako esparru xehea da DIGCOMP. Ingurune digitaletan lehiakorra izateko behar diren gaitasun guztien deskribapen xehea ematen du esparruak. Ezagutzetan, trebetasunetan eta jarreretan oinarrituta deskribatzen ditu, eta gaitasun bakoitzaren barruko mailak zehazten ditu.



DIGCOMPek gaitasun digitalaren osagai garrantzitsuenak identifikatzen ditu, aurreko grafikoan laburtzen diren bost eremu eta 21 gaitasun espezifikoetan.

DIGCOMP ereduari buruzko informazio gehiago hemen: https://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=en&catId=89&newsId=10193&furtherNews=yes

2. KONTRATAZIOAREN HELBURUA

"IKANOS ekimenean laguntzeko idazkaritza teknikoan eta ekimenaren hedapenean, gaitasun digital profesionalen alorrean eta zibersegurtasuneko gaitasun digital profesionalen alorrean" zerbitzua kontratatu behar du SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako (aurrerantzean, "**SPRI**") Eraldaketa Digitaleko Sailak. Kontratuak barne hartzen ditu Preskripzio Teknikoen Plegu honetan zehazten diren lanak.

Kontratuaren xede diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira (aurrerantzean, "**EAE**").

3. EGINGO DIREN JARDUEREN HELBURUAK ETA DESKRIBAPENA

3.1. Helburuak

Preskripzio tekniko berezien plegu honen xedea da esleipendun suertatzen den idazkaritza teknikoak eman beharreko zerbitzuak definitzea, DICOMP ereduko 21 gaitasun digitalen IKANOS ekimena SPRIk argitaratutako bi esparru-akordioren aholkularitza-enpresa esleipendunen eskura jartzeko. Akordio horien helburua da gaitasun digital profesionaletan, giza baliabideetan eta zibersegurtasunean espezializatuta dauden entitateak kontratatzea.

Lehen esparru-akordioa EAEko enpresetan "Gaitasun Digital Profesionalen" sistema bat ezartzeko zerbitzuak emateko Esparru Akordioa da.

Akordio horren helburua da estaldura ematea gaitasun digital profesionalak laguntza-programaren onuradun suertatzen diren enpresen alde jenerotan emango diren laguntzei. Programa horrek 2.000.000 euro inguruko aurrekontua izango du.

Halatan, aurreneko esparru-akordioak 16 aholkularitza-enpresa homologatuko dituela jotzen da, gaitasun digital profesionalen sistemak ezartzeko zerbitzua eman dezaten IKANOS ekimenaren bidez, gaitasun digital profesionalak laguntza-programaren enpresa onuradunentzat. Aurreikusten da aholkularitza-enpresek zerbitzuak emango dizkietela

400 enpresari baino gehiagori 2025ean, eta 12.000 lagunek baino gehiagok egingo dituztela gaitasun digital profesionalen diagnostikoa.

Informazio gisa, hona hemen gaitasun digital profesionalen 2024ko programaren emaitzak:









SECTOR DE ACTIVIDAD	TEST	SUBVENCIÓN
Industria manufacturera	2.677	590.700 €
Comercio al por mayor y al por menor; reparación de vehículos de motor y motocicletas	615	180.000 €
Actividades profesionales, científicas y técnicas	553	129.000 €
Actividades sanitarias y de servicios sociales	1.062	100.200 €
Educación	1.864	93.600 €
Construcción	497	84.900 €
Actividades administrativas y servicios auxiliares	234	70.200 €
Actividades artísticas, recreativas y de entrenimiento	334	63.900 €
Otros servicios	227	48.300 €
Hostelería	150	45.000 €
Transporte y almacenamiento	154	44.400 €
Actividades financieras y de seguros	47	14.100 €
Agricultura, ganadería, silvicultura y pesca	38	11.400 €
Actividades inmobiliarias	37	11.100 €
Información y comunicaciones	32	9.600 €
Suministro de agua, actividades de saneamiento, gestión de residuos y descontaminación	12	3.600 €
Total	**8.533**	**1.500.000 €**

Gaitasun digital profesionalak programaren 2024rako deialdia osorik gauzatu da, eta, arrakasta ikusita, laguntza-programaren beste deialdi bat abiaraztea aurreikusten da, 2025aren hasiera alderako. Aldi berean aurreikusten da beste esparru-akordio bat esleituko dela 16 aholkularitza-enpresarekin 2024aren amaieran, eta zerbitzua emango dute berriz, hortaz.

Garai berean, idazkaritza teknikoak aukera emango du zibersegurtasuneko gaitasun digital profesionalak programaren bertikala martxan jartzeko. IKANOS ekimenaren baitan izango da oraingoan ere, eta arlo horri soilik eragiten dioten gaitasun digitalak modu espezifikoan bultzatuko dira. Metodologia horrekin lotuta, zibersegurtasuneko gaitasun digital profesionalei buruzko autodiagnostiko-testa bideratuko da, eta zibersegurtasuneko gaitasun digital profesionalak programa berriaren onuradun suertatzen diren enpresetako langileek egin ahalko dute. Aurreikuspenak aurreikuspen,

SPRIk 2024ko azken hiruhilekoan argitaratuko du laguntza-programa, eta gaitasun digital profesionalak programarekin bateragarri eta haren osagarri izango da.

Hartara, SPRIren esparru-akordioaren aholkularitza-enpresa esleipendunei lagundu beharko die idazkaritza teknikoak. Zehazki, akordio hori plazaratzearen helburua da zibersegurtasuneko gaitasun digital profesionaletan eta giza baliabideetan espezializatutako entitateak kontratatzea. Esparru-akordio horri jarraikiz, 20 aholkularitza-enpresa homologatuko direla uste da, gutxi gorabehera, eta ZIBERSEGURTASUNEKO gaitasun digital profesionalen sistemak ezartzeko zerbitzua emango dute. Era berean aurreikusten da aholkularitza-enpresek zerbitzuak emango dizkietela 400 enpresari baino gehiagori 2025ean, eta 12.000 lagunek baino gehiagok egingo dutela gaitasun digital profesionalen diagnostikoa. Zerbitzu horiei estaldura emango dien enpresetarako laguntza-programak 4.000.000 euro inguruko aurrekontua izango duela jotzen da.

Azken batean, idazkaritza teknikoak laguntza emango die goian aipatutako SPRIren bi laguntza-programetako zerbitzuak emango dituzten aholkularitza-taldeei. Programak hauek dira:

- Gaitasun digital profesionalak laguntza-programa
- Zibersegurtasuneko gaitasun digital profesionalak laguntza-programa

3.2. Garatu beharreko jarduerak eta zerbitzuaren deskribapena

Zerbitzu hauek hartzen ditu barne SPRIk kontratatu nahi dituen zerbitzuen irismenak. Enpresen eta administrazioaren arloan gaitasun digitalen sistema ezartzera bideratuta daude guztiak:

i. Esleipendun izan eta EAEko enpresetan “Gaitasun Digital Profesionalen” sistema bat ezartzeko zerbitzuak emateko SPRIrekin “Esparru Akordioa” sinatu duten ***erakundeei laguntzea.***

ii. Esleipendun izan eta EAEko enpresetan ZIBERSEGURTASUNEKO gaitasun digital profesionalen sistema bat ezartzeko zerbitzuak emateko SPRIrekin esparru-akordioa sinatu duten ***erakundeei laguntzea.***

iii. Eraldaketa digital disruptiboko ingurune honetan, enplegagarritasunerako eta ikaskuntzarako ***gaitasun digitalak hobetzeko beharraren gaineko sentsibilizazio-lanetan laguntzea.***

iv. Aurkezpenetarako eta bat-egiteak lortzeko bilerak egitea ***www.ikanos.eus webgunea erabiliz,*** eta, halaber, aurkezpenak egitea ekitaldi eta foro propioetan edo beste batzuek antolatzen dituztenetan. Arlo horretan, zereginak hauek izango dira:

- Webgunea mantentzea eta eguneratzea.
- Euskarri-materiala prestatzea.
- IKANOS ekimeneko erabiltzaileak erakartzen laguntzea.
- EAEn enpresa bezeroekin IKANOS ekimena erabiltzen duten aholkularitza-enpresei laguntzea eta babesa ematea.
- SPRIri laguntzea, www.spri.eus webgunea gaitasun digitalei buruzko edukiz hornitzeko.

IKANOS ekimenari laguntzeko idazkaritza teknikoa zeregin hauez arduratuko da:

- Autoebaluazio orokorreko testak egitea: informazioa prestatzea, autoebaluazio-testak betetzearen jarraipena, emaitzen txostena prestatzea, *benchmarking* ebaluazioa eta emaitzak baloratzeko txosten exekutiboa. *EAEko enpresetan gaitasun digital profesionalen sistema ezartzeko zerbitzuak emateko esparru-akordioen* erakunde esleipendunei emango zaie informazio hori, **GAITASUN DIGITAL PROFESIONALAK** programako enpresa onuradunek hala eskatzen eta baimentzen dutenean.
- Zibersegurtasuneko gaitasun digital profesionalei buruzko autoebaluazio espezifikoko testak egitea: informazioa prestatzea, autoebaluazio-testak betetzearen jarraipena, emaitzen txostena prestatzea, *benchmarking* ebaluazioa eta emaitzak baloratzeko txosten exekutiboa. EAEko enpresetan *"ZIBERSEGURTASUNEKO Gaitasun Digital Profesionalak" sistema ezartzeko zerbitzuak emateko Esparru Akordioen* erakunde esleipendunei emango zaie informazio hori, **ZIBERSEGURTASUNEKO GAITASUN DIGITAL PROFESIONALAK** programako enpresa onuradunek hala eskatzen eta baimentzen dutenean.

- Profil profesional digitalak sortzea: daudenak eskaintzea, profil interesgarriak identifikatzea eta, erabiltzaileek eskatutakoan, erreferentziazko kasuak prestatzea. Pertsona batek lanpostuaren arabera eduki beharko lituzkeen 21 gaitasun digitalen maila (baxua, ertaina, altua) finkatu du IKANOS ekimenak. Beraz, norbaiten profil profesionala *komertziala* baldin bada, nahi den maila teorikoa esleituta izango du DIGCOMP ereduko 21 gaitasun digitaletako bakoitzerako. Logikoa denez, maila horiek eta beste profil batzuenak desberdinak izango dira; adibidez, marketinen, ekoizpenean, logistikan, administrazioan edo zuzendaritzan dihardutenentzat finkatutako mailak. Ildo horretan, 30 profil profesional baino gehiago garatu dira, EAEko edozein enpresetako langile gehienak multzokatu eta identifikatzen dituztenak. Hala ere, eredua aplikatu ahala, profil profesional gehiago identifikatu ahal izango dira, eta bezero diren enpresek proposatu ahalko dituzte.
- Gaur egun dauden profilen prestakuntzarako orientazioa ematea.
- Gaitasun digitalak egiaztatzeko BAIT egitasmoari laguntzea (https://www.bait.eus/IB/usuario/Estaticos.do?req=introduccion).
- Zalantzak argitzea, etengabeko jarraipena eta zerbitzuarekiko eta IKANOS ekimenarekiko asebetetze maila ebaluatzea.
- Erabilerarekin lotutako jardunbide egokiak identifikatzea.
- SPRIk eskatuta, trebakuntza-jarduerak egitea IKANOS ekimenari buruz honako bi esparru-akordioen enpresa esleipendunentzat: batetik, EAEko enpresetan gaitasun digital profesionalen sistema ezartzeko zerbitzuetarako esparru-akordioa; eta bestetik, zibersegurtasuneko gaitasun digital profesionalen zerbitzuak emateko esparru-akordioa.
- IKANOS ekimena eta haren egungo tresnak mantentzeko eta garatzeko laguntza tekniko eta metodologikoak honako barne hartzen ditu:
  - Kontrasterako eta hedapenerako dokumentu metodologikoak prestatzea.
  - Eredua garatzeko proposamen bat egitea, lotuta dauden beste gaitasun batzuk txertatu ahal izateko (ekintzailetza, sormena, berrikuntza,

jendetasuna, etab.), baita Europako Batzordearen ustez estrategikoak diren, baina Digcompen azken bertsioetan sartuta ez dauden beste gaitasun digital aurreratu batzuk ere (Adimen Artifiziala eta abar).

- Testean hobekuntzak proposatzea eta gauzatzea, PDP (Personal Development Plan) eta PLE (Personal Learning Environment).

- Zenbait arlo geografikotan egingo diren jarduerak eta trukeak diseinatu, ezagutarazi eta babesteko laguntza teknikoa. Hau izan behar du kontuan:
  - JRCrekin egindako ikerketa arloko elkarlanak babestea. (https://joint-research-centre.ec.europa.eu/jrc-sites-across-europe/jrc-seville-spain_en)
  - Europako Digcom praktiken komunitatean parte hartzea babestea.
  - Urtero egiten den IKANOS ekimenaren workshopa ospatzen laguntzea, beharrezkoa bada.
  - Kanpoko topaketa eta aurkezpenetan parte hartzen laguntzea
  - - IKANOS ekimenarekin elkarlanean aritzeko interesa duten kanpoko eragileei arreta eskaintzea.

Esleipendunak ziurtatu behar du aurkezten den zerbitzu-proposamena eguneratuta egongo dela, berritzailea izango dela eta erreferentziatzat joko dela bere arloko politika publikoetan. Alegia, idazkaritza teknikoak IKANOS ekimena egokituko du DIGCOMP ereduaren bertsio berriak ezartzearen eraginez gertatzen diren aldaketen arabera.

Kontratua gauzatzean, bermatu egin behar da zerbitzuak bi hizkuntza ofizialetan emango direla, eta ekintza guztietan hizkuntza eta irudiak ez direla modu sexistan erabiliko.

SPRIko ERALDAKETA DIGITALAREN Arloak zuzenean gainbegiratuko ditu proiektuko lantaldeak egindako lanak.

3.3. Zerbitzuaren dimentsionamendua

Esleipendunak erakundearen eta eskaintzan zehaztutako pertsonen bidez emango ditu zerbitzuak. Pertsona horiek ordezkatzeko, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan adierazitakoa bete beharko da.

Erakunde horrek eta pertsonek bulego bat gaitu beharko dute kontratua gauzatzen den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan.

Berehala egongo da prest zerbitzuak emateko, bai eta zerbitzuak direla-eta EAEko edozein lekutara joateko ere, eta esleipendunak ordainduko ditu EAE barruko joan-etorrien gastuak.

Aholkularitza-zerbitzuak gaztelaniaz edo euskaraz emango dira, kontratugilearen erabakiz.

Urteko 600-800 laneguneko lan-bolumena kalkulatzen da, eskatutako profiletarako dedikazioen estimazio honen arabera:

- Proiektuaren aholkulari burua (% 0,05)
- Aholkulari aditu espezialista (% 80)
- Aholkulari laguntzailea (% 15)

Argitze aldera, eguneko 8 orduko batezbestekoa hartuko da lanalditzat.

4. ESKATZEN DIREN LANTALDEA ETA PROFIL PROFESIONALAK.

Lizitatzaileek beren proposamen teknikoan eskaintzen duten lantaldeak langile kualifikatuak izan beharko ditu, eta Plegu honen 3. atalean identifikatutako arloetako teknikari espezialistek osatuko dute. Bereziki, proposatzen den lantaldeak baldintza hauek bete beharko ditu, gutxienez:

- DIGCOMP ereduarekin lotutako gaitasun digitalei buruzko ezagutzak.
- Pertsonen eta talentuaren kudeaketari buruzko ezagutzak.
- Zibersegurtasunaren arloko ezagutzak.
- Euskadiko enpresa-ehunari buruzko ezagutzak, baita enpresetako langileak gaitasun digitaletan gaitzeko beharrei buruzkoak ere, gaitasun profesionalei eta zibersegurtasuneko gaitasunei dagokienez.

Esleipendunak eskaintzen duen lantaldeko kideen zerrenda eman beharko du bere eskaintzan, baita eskaintzen dituen funtsezko langileak ere, taldearen egitura eta kideen profil profesionala eta dedikazioa azaldutako baldintzetara egokitzeko, eta esleipendunaren lantaldearen eta SPRIko lantaldearen artean ezagutzen transferentzia eraginkorra ahalbidetzeko.

Nolanahi ere, lantaldeak, gutxienez, profesionalen profil hauek izan behar ditu:

- Lizentziatu edo graduatu, unibertsitate-master edo doktore titulazioa duen pertsona bat, proiektuaren aholkulari buru, eman beharreko zerbitzuen arduradun nagusi eta SPRIk ordezkari izendatutako pertsonarekin solaskide gisa jardungo duena.
- Lizentziatu edo graduatu, unibertsitate-master edo doktore titulazioa duten 2 pertsona, aholkulari aditu espezialista gisa aritzeko.
- Lizentziatu edo graduatu titulazioa duen pertsona bat, aholkulari laguntzaile gisa jardungo duena.
- Proposatutako lantaldeko pertsona batek, gutxienez, gai izan beharko du zerbitzua euskaraz emateko. Hortaz, proposatutako lantaldeko kide batek, gutxienez, euskarako C1 maila edo baliokidea duela ziurtatu behar da eskaintza teknikoan.

Proposatutako lantaldeko kideek gutxienez honako esperientzia hau izan beharko dute, eta jarraian zehaztutako funtzioak bete behar dituzte:

Profil profesionala	Rolak eta esperientzia-urteak
1 proiektuaren aholkulari buru	• Aholkularitzan eta proiektuen kudeaketan esperientzia izatea, eta gutxienez 10 urteko esperientzia izatea zerbitzu honen xede den arloan. • Lidergoa: diziplina anitzeko taldeak gidatzeko eta proiektuak zuzentzeko gai izan behar du, sorreratik ezarpeneraino. • Kudeaketa-trebetasunak: proiektuak kudeatzeko trebetasun sendoak izan behar ditu, plangintza, baliabideen esleipena, arriskuen kudeaketa eta aurrekontua barne, eta SPRIko taldearekin proiektua deskargatzeko trebetasunak izan behar ditu. • Komunikazio-trebetasun bikainak: bezeroekin, barne-ekipoekin eta beste stakeholder batzuekin eraginkortasunez komunikatzeko gai izan behar du. • Emaitzetara bideratua: profil horrek emaitzetara bideratutako ikuspegia izatea eta ezarritako epe eta aurrekontuen barruan proiektuaren helburuak betetzeko gai izatea espero da. • Gaitasun analitikoa: Arazo konplexuak aztertzeko eta horiek konpontzeko irtenbide eraginkorrak garatzeko gai izan behar du.
2 aholkulari aditu espezialista	• Gutxienez 5 urteko esperientzia aholkularitzan proiektuarekin lotutako arlo espezifikoan. • Trebetasun teknikoak: ezagutza tekniko sendoa izan behar du bere espezializazio-arloan, eta ezagutza hori SPRIrekin zerbitzua gauzatzean sortzen diren arazoak konpontzeko aplikatzeko gai izan behar du. • Autonomia: esleitutako zereginetan modu autonomoan lan egin ahal izatea espero da, nahiz eta esleipendunak eta SPRIk

	osatutako taldeetan eraginkortasunez lagundu ahal izango duen. • Komunikazio-trebetasunak: SPRIko taldearekin argi eta garbi komunikatzeko gai izan behar du, ahoz zein idatziz. • Egokitzeko gaitasuna: lan-ingurune desberdinetara egokitzeko gai izan behar du, eta malgua izan behar du bere ikuspegian, proiektuaren erronkei heltzeko.
Aholkulari teknikari laguntzaile bat	• Gutxieneko esperientzia: ez da behar. • Ikaskuntza azkarra: azkar ikasteko eta proiektuan trebetasun eta ezagutza berriak eskuratzeko gaitasun sendoa izatea espero da. • Lankidetza: taldean ondo lan egiteko eta taldeko pertsona eskarmentatuenengandik ikasteko gai izan behar du. • Oinarrizko trebetasunak: analisian, komunikazioan eta arazoak konpontzen oinarrizko trebetasunak izatea espero da.

Gutxieneko taldeak osatzeko, esleipendunak baldintza hauek bete beharko ditu: kontratua behar bezala gauzatzeko behar dituen langileak jarri beharko ditu, eta indarrean dagoen legerian gaitasun tekniko eta profesionalari buruz jasotako eta Plegu honetan eskatutako baldintza orokor eta espezifikoak bete beharko dituzte; izan ere, giza baliabideak faktore erabakigarria dira zerbitzuaren kalitatean. Kontratuak irauten duen bitartean kontratua garatzeko behar diren pertsonek atxikita dauden profilaren araberako curriculum-maila izango dute.

Kontratura atxikitako langileak esleipendun enpresaren mendekoak izango dira. Inolako kasutan ere ez dute izango Eusko Jaurlaritzarekiko, SPRIrekiko eta/edo haien parte diren elkarteekiko lan-, kontratu- edo funtzionario-harremanik, ezta beste edozein motatako harremanik ere, ez kontratuak irauten duen artean, ez amaitzean.

5. IKUSKAPENA ETA ZERBITZUAREN KONTROLA

Egindako lanak SPRIren Eraldaketa Digitaleko sailak gainbegiratuko ditu, eta kontratatutako lanen garapen egokia egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen azalpenak eta informazioa eskatu ahal izango ditu.